

ARAUAK

Ebakuaziorako arauak

Hona hemen zenbait arau, sutea pizten bada jarraitu beharrekoak:

1. Txirrinak etenik gabe jotzen badu, utzi egiten ari zarena, eta osatu denon artean ilara bat. Irakasleak izango da lehena, eta arduraduna, azkena. Hura arduratuko da, gelan inor ez dela gelditzen eta gero, atea ixteaz.
2. Leiho ondoan eserita dauden ikasleen ardura da leiho guztiak itxita uztea.
3. Ez joan inoren bila. Ez bueltatu inoiz atzera. Eta ez erabili inoiz hoprrerakoetan igogailuak.
4. Ezin da ezer eraman, ez bizkar zorrerik, ez libururik, ezta bestelako objektu pertsonalik ere.
5. Irakasleak gidatuko du taldea. Azkar ibiltzea komeni da, baina lasterka egin gabe. Eta garrantzitsua da isilik joatea, irakaslearen jarraibideak entzuteko.
6. Guztion zeregina da aurrera egiteko zailtasunak dituzten kideei laguntzea.
7. Pasabidean, komunean... bakarrik geratuz gero, hurbilen duzun taldearekin bat egin, eta talde horretako irakasleari jakinarazi. Inork ez du inolaz ere irteera bere kabuz bilatu behar.
8. Keak eraginda arnasa hartzeko zailtasunak badituzu, estali ahoa eta sudurra zapi edo arroparen batekin, eta ibili makurtuta.
9. Itxitako gela edo aretoaren batean geratuz gero, estali ateko zirrikutuak (zuloak), eta erakarri kanpoko norbaiten arreta, leihoetako kristaletan kolpeak joz.
10. Aurrez adostutako bilgunera edo lekura iritsitakoan, itxaron ilaran irakasleak esan arte.

1. Irakurri eta gero erantzun galderei.

- Zer egoeratan erabiltzeko dira arauak?

- Nongo ebakuaziorako arauak dira?

2. Adierazi hurrengo esaldiak egia edo gezurra diren.

Igogailuak nahitaezkoa denean soilik edo bakarrik erabili behar dira.

Txirrinak jotzen duenean komunean bazaude, lehenbailehen zure taldearekin bat egiten ahalegindu behar duzu.

Ezin da bizkar zorroa edo motxila hartu, barruan gauza preziatuak eduki arren.

Gelaren batean itxita geratzen bazara, leihoak zabaldu haizea sartzeko, eta erakarri kanpokoan arreta, oihu eginez.

Gelatik ilaran eta makurtuta irten behar da.

Irakasleak erabaki behar du nondik eta noiz egin aurrera.

3. Zer egingo zenuke egoera hauetan? Aukeratu, eta gero, arrazoitu:

- Ilaran zoaz, gero eta ke gehiago dago, eta urduri zaude. Beldur zara kanpora ez ote zaren iritsiko.

Igogailua sutan egongo ez balitz, hartu egingo nuke, azkarrago jeisteko.

Lasaitzeko ahalegina egingo nuke, eta aurrera jarraituko nuke besteekin batera.

ZERGATIK?

- Ilaran zoazela, komunean norbait entzun duzu oihuka laguntza eske.

Arineketan edo korrikan joango nintzateke handik ateratzen laguntzera.

Aurrera jarraituko nuke, eta irakasleari jakinaraziko nioke.

ZERGATIK?